



Jada pasa dira 6 urte Astigarragako Herri Eskolako baratzea sortu zenetik. Egitasmoa sortu ondoren, udalaren eta guraso batzuen laguntzarekin martxan hasi zen ekoizpena. Hiru zuhaitz landatu ziren: pikondoa, gereziandoa eta sagarrondoa eta jada horiek emandako fruituak jateko aukera paregabea izan dugu. Udazkenean hauek izan ziren ereindako barazkiak: tipula eta baratxuriak, babak, ilarrak, letxuga, eskarola, zerbak eta azak. Udaberrian, berriz, beste landaketa bati ekingo zaio.




Azken urteetan, eskola baratzearen ardura 3. eta 4. mailan egon izan da, eta ikasle hauek arduratu dira landare eta barazkiak erein eta ureztatzeaz, Kepa irakaslearen laguntzaz. Horretaz gain, Haur Hezkuntzako ikasleak loreak landatzen aritu dira, eta udaberrian gero eta koloretsuago dago baratzea, gure eskola bezala.

Ikasturte honetan bi berrikuntza sartu dizkiogu baratzeari, Eskola Agenda 21 ataletik sustatuta. Alde batetik "*intsektuen hotela*" sortu dute 2 urteko ikasleek. Egur desberdinak pilatuta, etxe berria sortu dute intsektuentzat, eta intsektu mota desberdinak bertaratzen hasiak dira jada.

PUTZUA SORTZEKO EMANDAKO URRATSAK



Baratzea diseinatu zenean, putzu bat jartzeko aukera aurreikusi zen, baita horretarako beharrezkoak ziren lanak egin ere. Patio berrian euriak botatako urak jasotzen dira, horretarako diseinatutako kanaleta baten bidez. Ur hori, baratzean kokatuta dagoen zulo batera doa. Orain arte zulo hori itxia egon da, ez baitzegoen putzu gisa erabiltzeko atonduta.



Eskola Agenda 21 eko egitasmo baten laguntzaz, ikasleek uraren kontsumo jasangarriaren inguruko hausnarketa egin zuten. Ondoren, putzu bat sortzeko ezinbestekoak ziren ezaugarriak aztertu ostean, putzua diseinatzeko ideia zaparradari ekin zioten taldeka. Proiektua egiteko garaian, ongi kontrastatua egoteko eskatu izan diegu, ondoren talde handian aurkeztu eta defendatu behar baitzuten euren egitasmoa. Egitasmo hori aurrera eramateko aurrekontua egiteko ere eskatu diegu ikasleei, diru baliabideak zenbatekoak ziren kontutan hartuta.

Udaleko brigadako langileek eman diote forma putzuari. Egitasmo proposamenak kontuan hartuta, zeuden baliabideak kontuan hartuta, eraikitze lanetan jardun ziren langileak zenbait egunetan zehar. Azken emaitza nabaria da: parte hartze eta elkarlanari esker, jada badugu gure baratzeako putzua. Putzu honi esker, baratzeako barazkiak ureztatzeko aukera izango dugu urte osoan zehar.

Bide batez, idatzi honen bidez eskaera bat egiteko aukera probestuko dugu: uda garaian, baratzea ureztatzeko arduradun falta izaten dugu. Beraz, gurasoren bat udako tarte batean baratzea ureztatzeko ardura hartzeko prest badago, jar dadila gurekin harremanetan.

Bukatzeko, **eskerrak eman nahi dizkiegu Joxerra eta Joxe Manueli**, beraien prestutasun eta lanarengatik. Bide honetan jarraitzen badugu, fruitu asko jasoko ditugu.

Aupa gure baratzea!